

DIRU SARRERAK

Gure proiekturako, hainbat baliabide behar ditugu; hala nola, hainbat forma desberdinetara moldatzeko gaitasuna, material birziklatua erabiliz osatutako materiala eta dekorazio desberdinetara moldatzeko baliabideak.

Hasteko, jakin behar dugu gure produktuaren erosleak, hein batean, etxe txikia duten pertsonak edo espazioa aprobetxatu nahi dutenak (hotel bat adibidez) izango dira. Horregatik, eta kontuan izanda altzari batzuk direla (eta altzariak normalean gastu handi bat suposatzen dutela), ahalik eta gastu gutxiena suposatu nahi diegu. Hala eta guztiz ere, gure produktuak erabilera anitza du, eta beraz, altzari mugin ezin bat baino garestiagoa izan daiteke, kontuan hartuta gureak hainbat arlotarako balioko duela.

Esan bezala, gure produktuak hainbat forma desberdinetara moldatzeko gaitasun duen altzaria osatzea da helburu. Horretarako, interneten ikusi dugun bezala, halako altzariak 350 eta 800 euro arteko diru sarrerak suposatzen dute.

Hala ere, diru kantitate horri, material birziklatua erabiliz osatutako altzariak gehitu behar zaizkio; izan ere, aurreko paragrafoan, altzari "normalek" balio duten prezioa adierazten du, ez material birziklatuz osatutako altzariak. Gainera, gure kasuan, "Stadler" eta "Omar Coatings" konpainiekin lan egingo dugunez, prezioa zerbait altuagoa izango dela ondorioztatu dugu.

ALTZARI MOTA	PREZIOA
Hainbat aulkitan bihurtzen den mahai txikia.	300€/altzari bakoitzak
Apal bihurtzen den mahaia.	550€/altzari bakoitzak
Paretan gorde daitezkeen literak.	1200€/altzari bakoitzak

Errentagarritasun ataria kalkulatzeko, suposatzen dugu gure salmentaren zati nagusia apal bihurtzen den mahaiak lortuko du %40ko salmentarekin; beraz, besteekiko %10a baino gehiago. Kalkuluak eginez, erantzun honetara iritsi gara:

Hainbat aulkitan bihurtzen den mahai txikia	22 unitatetik aurrera izango da errentagarria
Apal bihurtzen den mahaia	15 unitatetik aurrera izango da errentagarria
Paretan gorde daitezkeen literak	6 unitatetik aurrera izango da errentagarria